

PR-NA 1 ABARTAN

I.I.D.E.:

Ziga – Elorregiko lepoa (Abartan) – Berroeta – Aniz - Ziga

Luzeera: 12,770 km

Desnibela: 600 mt

Zailtasuna: ERTAINA

Abartan mendiko magaletik eta “Basaburua” koarteleetik ibilaldia (Baztango eskualde tradizionala, Erberrea, Elizondoa eta Baztangoizarekin batera). Elorregiko leporainoko tartea, menditsua oso, ikuspegi ederrak eskeintzen du. Hainbat monumentu megalito ikusten ahal da (trikuharriak erdiko magalean, eta harrespilak eta zutarriak goiko aldean). Bukaeran, Baionatik Iruñeara doan Santiagoko Bidean barna, Berroeta, Aniz eta Zigako herriak zeharkatuko dira.

IRTEERA > Ziga, muino batetan kokaturiko herria. NA-2540 errepidetik sartu eta herriko beheko aldean, zabalgunen txikia eta norabideen gurutzua. Santiagoko Bideko pasagunea. Herrian denda-ostatua eta hainbat landa etxe badago.

OHARRAK

- Ibilbidearen ia desnibel osoa (550 mt) hasierako tartean egiten da, Zigatik Elorregiko lepora.
- Errepidea: ibilbidearen bukaeran, Berroetatik Zigara, NA-2540 errepideko bi tarte ibili behar dira, arzenik gabekoak. Erne ibili.

DESKRIBAPENA

0,000 km: ZIGA (350 mt), herriko beheko aldea eta zabalgunea. Elizondotik etorrira, eskuinean herriko plazarako malda eta Santiagoko Bideko karrika (H.>, itzultzeko bidea) utzi eta ezkerretik igo (H.M.>), etxe baten ondotik eta gorape moduko estalpe bat zeharkatuz. Igoera pikua; 150 mt aurrerago, bifurkazioa eta ezkerretik segi.

0,315 km: Errepidea gurutzatu eta pareko bidetik igo, norabidea mantenduz. Hasieran bide zakarra eta harritsuak da, 50 mt-ara pista zabal eta erosoarekin bat egin arte. Hariztian barnako igoera, “kanadiar” pasu bat zeharkatuz.

0,800 km: Bifurkazioa. Eskuinetik (H.E.>) igo.

0,985 km: Bifurkazioa, haritz zaharren artean. Eskuineko (H.>) bide maldatsutik igo (ezkerreko bidetik ere igotzen ahal da, zigi-zaga haundi bat eginez).

1,250 km: Ezkerretik eta eskuinetik lehen utzitako bi bide elkartzen dira. Bidea zabaldu eta metro batzutura bizkarrera ailegatuko da (580 mt). Tarte zelaia eta kareharritsuak, ardi borda eta harriesietan barna, Irurita eta Elizondoko ikuspegi zabalekin.

2,320 km: Harresi bat ezkerrean eta lepo txiki bat (578 mt) eskuinera utzita, berriz maldan gora bide zabal edo bidexkatik, mendiko larretan barna eta beti ere eskuinean ur biltegi bat utzita.

2,740 km: Sorotako borda, eskuinean. Bere belagiaren barruan, bizkarrean, izen bereko trikuharria dago (*IKUS: 554 fitxa*), horretarako eremu pribatua sartu behar delarik (balangoak itxi). Belagiaren bazterretik igo, bide zabaletik.

2,850 km: Sorotako lepoa (650 mt) eta mendi bizkar zabala (trikuharria hemendik gertuago bada ere, ez dago alanbrea zeharkatzeko hankapasurik). Bide zelai eta zabala, pista modukoa, Baraburuko Kaskoa mendi magaletik (H.M.>). Borda erori bat pasa eta pagadian sartu.

3,220 km: Bifurkazioa, errekatxoa zeharkatu eta gero. Pista eskuinetik utzi eta ezkerreko bide harritsutik igo, pagadi ozpelean barna.

3,555 km: Lehen utzitako pista zeharkatu eta zuzen igo, pagaditik atera eta larretan barnako bidexkatik.

3,790 km: Soateko bizkarra (785 mt) eta trikuharria (*IKUS: 553 fitxa*), bidearen eskuinean. Ondoan, Zigako gazte baten omeneko hilarria. Mendi magaleko igoera pikua mantendu, eskuinetik abereek zabalduko eta errekarara doazen hainbat bidexka baztertuz.

4,615 km: Irlintziko zutarria (*IKUS: 552 fitxa*), 20 mt ezkerrean. Bide nagusitik segi.

4,830 km: ELORREGIKO LEPOA (901 mt), zabala eta belartsua, Abartan mendiko I.E.ko magalean. Baztango behatoki paregabea eta inguruko azienden bazkalekua. Bertan gaizki kontserbatzen den harrespilen multzoa dugu (*IKUS: 520-530 fitxa*). Ibilbidearen punturik altuena eta bidegurutzea: zuzen (H.M.>), Abartan eta Saioako igoera (balizatu gabea). Eskuineko bide zelaitik jo (I.M.), iturburu bat zehakatu.

5,180 km: Aizkoako lepoa (894 mt), eskuinean. Bertatik bidexka bat (I.>) tontorreko harrespilen gune ikusgarria (*IKUS: 532-540 fitxa*) igotzen da (150 mt-ko balizatu gabeko deribazioa). Berriz lepora itzulita, bide nagusitik jeitsi (I.M.>), larretan barna eta Urlegiko kasko harritsua ezkerrean utzita.

5,605 km: Jeitsiera pikua eta pagadiaren hasiera, borda baten hondakinen ondoan. Eskuinetik bide bat elkartzen da.

6,040 km: Bide nagusiaren zigi-zaga eskuinetik laburtu.

6,115 km: Basoko pista (740 mt) eta zelaigunea. Bide gurutzea: eskuinetik (I.>), jeitsiera pikua Anizera, bide zaharretik; ezkerretik (H.>), Urlegiko magalerako igoera. Zuzen segi (M.>), pista nagusitik; 600 mt-ra pagaditik atera eta zigi-zaga haundi bat egiten du, luberrietan barna.

8,225 km: Lepoa (490 mt) eta borda. Bidegurutzea: eskuineko pista nagusia segi (I.E.>), hasieran larre zabaletan barna eta gero harriz mugaturiko belagien artean.

8,885 km: Bidegurutzea. Ezkerretik (H.>), Maringo errekarara (Santiagoko Bideko alternatiba); zuzen jeitsi. Bertatik 150 mtra, egurtegi batzuen ondoan eta ikuilu berri batetara ailegatu baino lehen, bide nagusia utzi eta eskuinera jo, bide zaharretik.

9,230 km: Ezkerretik bide zabalarekin bat egin eta zuzen segi, belagien artean.

9,530 km: BERROETA (370 mt), herriko iturria eta bidegurutzea: ezkerreko karrikatik (M.>), Almandozera (Santiagoko Bidea). Zuzen segi (I.>), Zigako errepidetik eta herritik ateratzen, Santiagoko Bidearen kontrako zentzuan, ibilbidearen bukaera arte.

9,655 km: Bidegurutzea: errepidea utzi eta eskuinetik segi, kanposantuko bide zabaletik.

10,250 km: NA-2540 errepidea. Bertatik 250 mt egin, arzenik gabe.

10,500 km: Errepide utzi eta ezkerreko bidetik jeitsi (I.>), errekarantz. Inguru ozpela eta hurritza ugari; 100 mt aurrerago, ezkerreko bidea utzi eta zuzen igo.

10,725 km: NA-2540 errepidea zeharkatu eta norabidea mantendu, harresien arteko kaltzada bidetik. Anizko herria bistan geratzen da, ezkerrean.

11,055 km: Baserria eta bidegurutzea (390 mt). Ezkerretik, bide asfaltatua ANIZ (200 mt >) aldera. Zuzen segi, baserriaren atzetik eta Trinitate ermitaren ondotik; 75 mt aurrerago eta ikuilu haundi baten ondoan, berriz bide asfaltatuarekin bat eginez. Hemen, eskuinetik (H.>) Abartandik datorren bidea elkartzen da (6,115 km-an aipatua). Zuzen segi (E.>), bide nagusitik.

11,425 km: NA-2540 errepidea. Bertatik 800 mt egin behar da, iturri baten ondotik pasatuz.

12,235 km: Bidegurutzea, Zigako sarreran. Errepidea utzi eta ezkerretik (I.>) jeitsi, herriruntz doan bide asfaltatutik.

12,770 km: ZIGA (350 mt), herriko beheko aldea eta zabalgunea. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.